



‘Tolosa 2015’ proiektu estrategikoa martxan da

AGENDA 21 ▶ «Herritarren partaidetza» bultzatu eta herriaren etorkizuneko eredia finkatuko du

ESKAERAK ▶ Lan mahai bat eratzea eta egutegia berraztertzea eskatu dute herritarrek aurkezpenean ▶ 2

TOLOSA ▶

Promozioan ezustekorik ez bada, mailari eutsiko dio Tolosak

‘Lulu’ entrenatzaileak taldea utziko du ▶ 3



Eskualdeko bertsolariak Eskolartekoan

TOLOSALDEA ▶ Asteasu eta Alegia-Usurbil izan dira Bertso Txapelketako finalean; Asteasu eskolako Ane Labaka Euskal Herrikoan ariko da ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

«Eskualdeko lur jabeengan eragingo du gehien AHTk»

Baserritarren etorkizuna «kolokan» jarriko duela salatu du EHNEk ▶ 6



Eneko Karrera, atzo. I. TERRADILLOS

LEITZA ▶

Final-laurdenak erabakita Plazako Pilota Txapelketan ▶ 7



Elbarri eta 3. adin-erako bilatzen zenuen guztia!

- Gurpil-aulki elektrikoak
- Gurpil-aulki manualak
- Garabi elektrikoak
- Eskailerak igotzeko aparatuak
- Ohe artikulatua elektrikoak
- Bainurako laguntza teknikoak
- 3. adinerako materiala
- OSAKIDETZA-rekin hitzarmena
- Mantenimendu TAILERRA
- ALOKAIRU zerbitzua



Laskibar Industrialdea 19 Pab. 3-01 20270 IRURA

Tel.: 943 69 22 65 · Faxa: 943 69 43 89

posta eletronikoa: mikelan@mikelan.com

www.mikelan.com

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ **egunero** 8 orrialdeko **kalitateko egunkaria, euskaraz**
- ▶ **uneoro** informazioa eskura www.tolosaldeko-hitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

txartel berriarekin abantailak!

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□



beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste



egunean 0,18 zentimoren truke etxean



AGENDA 21 ▶

Jasangarritasunaren bidean, 'Tolosa 2015' proiektu estrategikoa aurkeztu dute

Agenda 21en markoan, iragan astean aurkeztu zuten; «herritarren partaidetza» bultzatuko du proiektuak eta herriaren etorkizuneko eredia finkatuko du



Tolosa 2015 proiektua aurkeztu zuten, iragan astean, etorkizunean lortu nahi den herria aztertzeko. J. SAIZAR

NOELIA LATABURU

Jasangarritasunarekin bat datorren herri eredia eraikitzeke estrategia baten beharra bil-tzen duen proiektua aurkeztu zuten, iragan astean, Tolosako udal teknikariek: *Tolosa 2015*, hain zuzen ere. Helburua «Agenda 21en esperientziatik eta 750. urteurrenaren erakutsi-takoetatik abiatuta, aurrera be-girako hausnarketa irekia egi-tea da, Tolosaren etorkizunari buruz eta haren erronka eta aukerai buruz».

Agenda 21en markoan aur-keztutako proiektu honen ar-datx ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren jasanga-rritasuna izango dira; hau da, ingurumenari errespetua izate-a, justiziaren eta berdintasun sozialaren alde egitea eta ore-ka eta barietatea erreferentea izatea.

Proiektua egikaritzeko azter-tu dituzten datuen arabera, «Tolosak baldintza egokiak

ditu lanean jarraitzeko gaita-sun berezia ematen diena, bai eta erronka berriei arpegia emateko ere, beti ere jasanga-rritasunaren bidean».

Udal teknikariek «herrita-rren partaidetzaren garran-tzia» azpimarratu zuten uneoro aurkezpen ekitaldian. «2015-erako nahi dugun Tolosa lor-tzeko proiektu honek Udalaren eta biztanlegoaren arteko el-klarlana eskatzen du, norberak bere arduren baitan». Bestal-de, egutegi zehatza proposatu dute Udaletik, txostenean ondo zehaztuta dagoena.

Bertaratuen proposamenak

Bilerara bertaratu zirenek ere hitza hartzeko aukera izan zu-ten, bertan aurkeztutakoaren harira. Batetik, Amaro azulo el-karteko ordezkariak lan mahai bat osatzeko proposamena plazaratu zuten, «parte hartu nahi duten herritarrek osatua, egokituz jotzen diren udal tek-nikari eta ordezkari politikoe-kin batera». Irakasleen orde-zkaritzak, bestetik, egutegiaren kezu azaldu ziren, «estuegia baita proiektu egokia aurrera eramateko».

Azalpen hauen ondoren, pu-blikoaren artean zegoen Tolo-sako alkate Jokin Bildarratzek hainbat konpromiso hartu zit-uen. «Amaroz Auzo Elkarteak proposatutako lan mahaia onar-tuko dugu, egutegia guztion beharretara moldatuko dugu eta lanean hasteko edukiaz az-tertuko ditugu».

GIZARTEA ▶

Hirukidek ludoteka antolatu du, udarako

Hirukidek ludoteka zerbit-zua eskainiko du udan, Gainberrin. Ludotekako ar-duradunek jolasak, eskula-nak, irteerak eta igerilekua moduko ekintzak antolatu di-tuzte. Orduetgia 09:00etatik 13:00etara izango da, eta jan-gela zerbitzua erabiltzen du-tenentzat 14:00ak arte luzat-uko da. Izen-ematea Hiruki-de ikastetxeko idazkaritzetan egin daiteke.

GIZARTEA ▶

Ekitaldi gehiago Adinekoen Astearen harira

Iurreamendi egoitzak antola-tu duen Adinekoen Asteak aurrera darrai. Hala, gaur ere ekitaldi bete egun izango dute. 10:30ean mezarekin emango diote hasiera eguna-ri. Ondoren, 11:00etatik au-rrera, galderen lehiaketa egingo dute eta, ondoren, sa-rien banaketa burutuko dute. Amaitzeko, 17:00ak aldera, txokolatada egingo dute lo-rategian.

ZINE-KLUBA ▶

'Como una imagen' filma, gaur zine-klubean

Gaur, Tolosako Kultur Etxeko aretoan, 21:30etik aurrera, zine-klubaren saio berri bat eskainiko dute, Agnes Jaoui zuzendariaren *Como una imagen* filma, hain zuzen ere. Istorioak Lolita ikasle fran-tziarraren bizitza kontatzen du. 20 urte ditu Lolita eta duen gizentasunak arazoak ekartzen dizkio. Cannes-en gidoidi onenari saria jaso zuen filmak, 2004. urtean.

KULTURA ▶

Migel Anjel Oriberen eskulturak ikusgai

Iragan ostiraletik datorren hilabeteko lehen egunera bi-tarte, Migel Anjel Oribe es-kuulturagilearen eskulturak ikusgai dituzte, Tolosako Aranburu jauregian. *Aterpe-ak* izeneko lana aurkezten du egileak. Aranburu Jauregia bisitatatu nahi dutenentzat, ordutegia, arratsalde, 17:30etik 20:30era da egune-ro, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.

ZINEMA ▶

'Laburrada', etzi, Amaro azulo auzo etxean

Aurreko urteetako arrakasa-tari jarraiki eta jendearen es-kaerari men eginez, Amaro azuloan *Laburrada* antolatu dute, laburmetraien emanal-dia, hain zuzen ere. Aipatu ikuskizuna etzi egingo dute, larunbatarekin, 20:00etatik aurrera. Amaro azulo El-karteak antolatu du ekitaldia eta Amaro azulo auzo etxean eskainiko dituzte film labu-rrak.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Haur eskolak. Haurren zaintzaile eta hezitzaile postuak bete behar dituzte. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Hurrengo deialdiak udaletarako eta ikastetxeetarako. Informazioa doan: 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta. Udalek administrari laguntzaile postuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Bezeroen arreta. Aireportuetarako

plazak libre. 943 31 37 82.

Gidariak. Eusko Jaurlaritzarako eta udaletarako behar dira. 943 31 37 82.

Udalak. Lorezainak, elektrizistak, iturginak, administrari laguntzaileak, atezainak. Udaletarako postu horiek bete behar dituzte. 943 31 37 82.

Sukaldariak. Sukaldariak eta sukaldako laguntzaileak behar dira egoitza, eriebe eta ikastetxeetarako. 943 31 37 82.

Lanpostuak. Igeltsero, elektrizista, iturgin, pintore lanpostuak. Udaletarako plazak libre.

943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Sukaldari laguntzaileak, obra zaindaria, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak, garbitzaileak behar ditu.

943 31 37 82.

INKESTA ▶ Garrantzitsua iruditzen al zaizu HITZaren harpidetza egitea? Zergatik?

ANJEL ALKAIN
 AKTOREA

«Gertuko gauzak dira maiteenak»



«Garrantzitsua izango ez da, ba! Eta arrazoia... gehiagotan esan izan dudana bezala, gertuko gauzak ia beti maiteenak eta garrantzitsuenak izaten direlako».

AITOR MENDILUZE
 BERTSOLARIA

«Logikoa da HITZaren zerbitzua ordaintzea»



«Garrantzitsua iruditzen zait HITZAREN lana, kanpoko albisteez gain bailarakoak jasotzea ere beharrezkoa baita. Logikoa da ordaintzea, zerbitzu batengatik».

JUAN KRUZ IGERABIDE
 IDAZLEA

«Bestela oso zaila dute aurrera egiteko»



«Bai. Horrelako ekimenek, bestela, aurrera egiteko oso zaila baita. Euskal prentsarentzat oso zaila da aurrera egitea laguntzarik ez badu».

JOSE LUIS HUARTE
 LIBURUZAINA

«Orain inguruko herrien berri dugu»



«Bai. Arrazoi askorengatik, horien artean: gu, inoiz eskualdekoak izan ez garen arren, orain, Tolosaldeko herri txikien berri ere badugulako».

MIGUEL ZEBERIO
 MUSIKARIA

«Bere lekua du egunerokotasunean»



«Oso proiektu interesgarria da HITZA eta bere lekua du egunerokotasunean. Normala denez, gauzek bere kostua dute. Bestalde, edukietan gaueziak dituela uste dut».

TOLOSA ▶

ESTI EZEIZA

2005-2006 denboraldia amaitu da dagoeneko, eta Tolosak lan handia egin du jardunaldi horietan guztietan. Hirugarren Mailan jokatu dute berriro eskualdekoek, eta 12. postuan amaitzea lortu dute.

Denboraldia indartsu eta ilusioz hasi bazituzten ere, amaierarako gauzak zailtzen joan zitzaizkien. Orain Promozio taldeek egingo dituzten emaitzen zain daude, mailan mantenduko diren ala ez jakiteko.

Nahiz eta talde honentzat lehendabiziko urtea izan Hirugarren Mailan, futbolari hauek urte ugari daramatzate elkarrekin. Bestalde, entrenatzaile Jose Manuel Luluaga Lulu tolosarra izan dute; hau ere estrai-nekoz aritu da halako talde bat entrenatzen. Eta orain, denboraldia amaitu dela, bere lana uzte erabaki du.

«la ziur» mantenduko du Tolosak maila

12. geratu da, eta orain promozioaren emaitzen zain dago



2005-2006 denboraldiko Tolosa CFko Hirugarren Mailako jokalariek, aurkezpenean. LEIRE MONTES

JOSE MANUEL LULUAGA ▶ TOLOSA CF-KO ENTRENATZAILEA

«Atsedendaldi baten beharrean nago»

 Jose Manuel Luluagak, Lulu-k, urte asko daramatza gaztetxoak entrenatzen. Baina denboraldi honetan Hirugarren Mailan jokatzeko duen Tolosa entrenatzen aritu da. Aurtengoa maila honetan jarduten den lehendabizikoa eta azkena izan da, baina taldearekiko esker hitzekin amaitzen du bere lana. **12. geratuta, noiz jakingo duzue maila berean mantentzen zareten ala ez?**

 Oraindik aste bat-edo itxaron beharra daukagu, promozio-ko emaitzak-eta jakin arte. Baina oso zaila da jaiste, ziurrenik mantendu egingo gara. **Hirugarren Mailan lehen aldiz aritu da talde hau. Zer nolako balantzea egiten duzu?**

Orokorrean, oso baikorra. Iazko jende berak jarraitu du eta.

 Hala ere, pena izan da, oso ongi hasi baikin, ilusioz eta indartsu, baina denboraldiaren amaieran gauzak okertu egin ziren. **Zergatik uste duzu jaitsiera hori eman zenutela?**

Hasieran defentsan oso indartsu aritu ginen, horregatik, golen bat sartuz gero, hiru puntuak guretzat ziren. Baina denboraldiaren amaieran gehiago kostatzen zitzaigun golak sartzea, azkeneko metroetan ez genuen asmatzen eta defentsa lana ere ahuldu egin zen. Ondorioz, hiru puntuak lortzea asko kostatzen zitzaigun.

Talde oso gaztea izanda, zer moduz ikusi duzu? Taldea ondo, orain, oso ongi etorriko litzateke talde bera mantentzea. Esperientzia al-

detik ikasi egingo baitute, eta ongi etorriko zaie datorren urterako.

Entrenatzaile lanak uzte erabaki duzu. Zergatik?

Eguberrietarako erabakia nuen hau, atsedendaldi bat behar dut. Futbola gehiegi bizi dut, eta deskonektatu beharra daukat.

Hala ere, itzulerako ateak irekita al daude?

Printzipioz, oraindik ez dut pentsatu nahi. Atsedendaldi baten beharrean nago.

Zuretzat ere lehendabiziko aldia izan da maila honetako talde batean...

Bai, eta alde horretatik oso esperientzia ona izan da. Baina orain, taldeari ere ongi etorriko zaio beste modu batera ohitzea, dinamikaz-eta aldatzea,



LEIRE MONTES

eta baita gauza berriak ikastea ere.

Mailaz igotzea izango al du helburu Tolosak hurrengo denboraldian?

Kategoriko gogorra da Hirugarren Maila, eta bertan mantentzea ere ez da erraza. Bizkaian oso talde onak daude, gainera.

BELAUNTZA ▶

Bost pertsona atxilotu dituzte droga sare batekin lotuta

Ustezko errudunak Belauntzan eta Donostian atzeman dituzte

E. EZEIZA

Espainiako Poliziak estupefaziante sare bateko uestezko bost kide atxilotu zituen asteburuan. Belauntzan eta Donostian egin zituen atxilotaketak, eta bertan 1,6 kilo kokaina, 17.900 euro eta dokumentaziorik gabeko eskopeta bat atzeman zituzten.

Atxilotuen artean, 26 urteko belauntzar bat eta 32ko donostiar bat daude. Nahiz eta gainontzekoak ere Donostian bizi, bi brasildarrak dira eta bat Ekuadorkoa.

Bestalde, probak lau etxebizitzetan egindako miaketatik lortu zituzten. Lehenengo Belauntzan egin zuten, non 1,5 kilo estupefaziante, kokaina, eta beste hainbat elementu aurkitu zituzten. Gainontzeko hirurak Donostian eman ziren, eta hauek 100 gramo kokaina, dokumenturik gabeko eskopeta bat, deskarga elektrikoak emateko tresna bat eta estupefaziante sareari lotutako beste hainbat elementu aurkitu zituzten. Hauek denak eta beste hainbat proba gordeak izan dira, azterketak egin ahal izateko. Iturriek jakitera eman dutenez, operazio hau ikerketa luze baten azkena izan da. Lanak azarotan hasi zituzten polizia, eta nazionalitate ezberdinetako beste 10 pertsona ere izendatuta daude, denak ere estupefaziante sareari lotuta.

VILLABONA ▶ MUSIKA



Isidro Larrañaga Akordeo Orkestrak bere 25. urteurrenean Tolosako Leidorren eskainitako kontzertua. HITZA

ERREDAKZIOA

Isidro Larrañaga Akordeo Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur Villabonako Txistularien plazan. 20:00etan hasiko da emanaldia. Leku ireki batean akordeo doinuez gozatzeko aukera izango dute, beraz, emanaldira joaten direnek.

Orkestra 1980. urtean sortu zen eta egun 14 eta 35 urte bitarteko 40 musikariz osatutako taldea da. Partaide gehienak goi mailako musika ikasketak amaitzen ari dira eta gainerakoek amaituta dituzte ikasketak

Akordeoen doinu askeak

Isidro Larrañaga Akordeo Orkestraren emanaldia, gaur, Txistularien plazan

horiek. Sari ugari jaso dituzte hainbat herrialdeetan parte hartutako ekitaldietan.

Egun, askotariko estiloak bil-

tzen dituzten kontzertuak eskaintzen ditu orkestrak, Isidro Larrañaga Morenoren zuzendaritzapean.

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Buztinez egindako lanak margotzeko txanda

Erredakzioa ▶ Onddo Gazte Asanbladak aurreko larunbatean beste tailer bat antolatu zuen haurrentzat. Txistularien plazan elkartuta, aurretik buztinez egindako lanak margotzeko txanda

izan zuten. Haur, gazte, zein helduek parte hartu zuten tailerlean. Onddokoek azaldu dutenez, beste tailer batzuk ere prestatuko dituzte haurrentzat aurrerantzean. HITZA

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Martinez eta Gorostegi, Euskadiko txapeldunak

Danena-Olaederrako beste pultsulariak ere lehenengo postuetan sailkatzea lortu dute

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra pultsulari taldekoek beste behin oso emaitza onak lortu dituzte. Kasu honetan, Euskadiko Txapelketan (banaka, taldeka eta federazioka) eta Kadete eta Promesen Ligan hartu dute parte. Teddy Martinezek gizonen postuetan eta Lourdes Gorostegik emakumezkoetan lortu zuten Euskadiko txapeldunak izatea banakakoan, maila guztiak kontuan hartuta.

EuskadikoTxapelketan ondoko postuak lortu zituzten pultsulariak: 56 kilotan, Iker Martinez lehenengoa (bi denboratan, 15 urte azpikoan errekorra lortu zuen, 67 kiloko markarekin); 62 kilotan, Igor Salsian lehenengo eta Jon Lopez hirugarren; 69 kilotan,

Aritz Salaberria izan zen bigarren; 77 kilotan, Jon Ander Iriarte bigarren; 85 kilotan, Teddy Martinez lehenengoa; eta 105 kilo baino gehiagoko mailan, Jon Tecedor bigarren sailkatu zen. Emakumezkoetan, Lourdes Gorostegi lehenengoa izan zen bere mailan, 75 kilotan. Taldekako sailkapenean zein federaziokoetan, Gipuzkoak lehenengo postua lortu zuen.

Bestalde, Kadeteen Ligan, Iker Hernandez lehenengo postuan sailkatu zen, Julen Intxausti zortzigarren, Jokin Urkizu hamaikagarren eta Enaitz Robles hamairugarren. Taldekako bigarren izan ziren. Promesetan, Angel Martin bigarren izan zen eta Adrian Salsian zortzigarren. Taldeka bigarren sailkatu ziren.

ZIZURKIL ▶ ASTE BERDEA



Joko interaktiboak ere natura zaintzeko baliabide

I. Garcia ▶ Hogei bat haur bildu ziren atzo Atxulondo kultur etxean Aste Berdearen baitan antolatutako beste ekitaldi batera. Kasu honetan, *Lurra eta biok* joko interaktibo batean parte hartzeko aukera izan zuten haurrek. Bertan, esaterako, ingurumena errespetatzeko eta zaintzeko bainugelari egin beharreko praktikak erakutsi zizkieten haurrei. IMANOL GARCIA

Diberti zaitetz zientziarekin kutxaGunean

KutxaGuneko leihatilan kupoi hau erakutsiz gero, museorako **bi sarrera doan** jasoko dituzu hamar urtetik beherakoentzako.

Eskaintza honek 2006ko irailaren 30a arte balio du.

www.kutxa.net

kutxa

ALTZO ▶

Uda berezia pasatzeko 'Uda 2006' antolatu dute

Udaletxetik haur, gaztetxo eta begirale izan nahi dutenentzat deialdia zabaldu dute

N. URBIZU

Aurten ere haur eta gaztetxoentzat *Uda 2006* antolatu nahi dute Altzon. Hilaren 26tik uztailaren 21era izango da. Horretarako deialdia luzatu dute, alde batetik partaide izan nahi duten haur eta gaztetxoei, eta bestetik begirale izan nahi duten helduagoei ere.

Interesa dutenek udaletxean izena eman behar dute, hilaren 13a baino lehen.

Kontuan izan beharreko berezitasunetako bat hau da: haur eta gaztetxoak 3 urtetik 14ra bitartekoak izan behariko dute.

Begiraleak ere behar dira

Herriko haurren ardura har dezaten, begiraleak behar dira. Udaleku hauetarako, begiraleak izango direnak aukeratzeko eskarmen-tua baloratuko dute.

Ondo pasatzeko aukera hau aprobetxa dadin, gonbidapena luzatu egin dute Udalekoek eta elkarteek.

ALEGIA ▶

Festetarako txistularien entsegua egingo dute

N. URBIZU

Alegiako festak Karmenetan ospatu egiten dira, eta aurten ere herriko txistulariak kontuan hartuko dituzte.

Festetako igandean, uztailaren 16an, alegia, kalejira egingo dute herrian zehar. Horrela nahi izan du Jai Bartzordeak.

Entsegua egingo dute bihar, ostiralean, 20:00etan, Kultur Etxean. Aurreko bileran lehenengo entsegu hau egitea erabaki zuten. Inork partituren bat behar badu, bertan eskura dezakeela adierazi dute antolatzaileek.

KULTURA ▶

Eskolarteko XXVI. Bertso Txapelketan ondo aritu da Asteasu

Txikietan Urretxu-Zumarragak eta banakakoetan Zarauzkoak irabazi dute; Alegia-Usurbil eskolakoek ere parte hartu dute



Haritz Mujika, Ane Labaka eta Unai Mendizabal bertsolariak. HITZA

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Eskolarteko XXVI. Bertso Txapelketan eskualdeko hainbat bertso eskolek hartu dute parte. Baita maila polita erakutsi ere, aurreko ostiralean jokaturako lehian. «Oso maila handia egon da», Amaia

Agirre Asteasu eta Alegia-Usurbil eskoletako irakasleak.

Taldea eta binaka izan da txapelketa, eta taldekakoen artean iazko taldea izan da garaille: Urretxu-Zumarraga, alegia. Banakako bertsoetan, aldiz, Zarauzko gazte bat izan da irabazle, eta baita bigarrena ere.

Asteasu eta Alegia-Usurbil taldeek Zarautzen kantatu zuten maiatzaren 12an. Handietan ere Villabona-Amasako Beñat Iguaran, Oihana Iguaran eta Aritz Garinek kantatu zuten, 14-18 urte bitartekoetan. Hauek banaka egin behar izan zituzten bertsoak.

Finalaren eguna

Ez zuten zorte handirik izan eta finaletik kanpora geratu ziren bakarlari hauek. Esan beharra da Aritz Garin duela bi urte finaleraino irabazi zuen.

Txikietako eskualdeko bi taldeak finalera pasatu ziren. Alegia-Usurbil taldean dauden bertsolariak hauek dira: Imanol Irazustabarrena (Alegia, 12 urte), Ugaitz Agirre (13 urte), eta Ander Izeta (12 urte).

Asteasukoa, berriz, hauek izan ziren bertsolari gazteak: Haritz Mujika (Asteasu, 10 urte), Ane Labaka (Lasarte, 13 urte), eta Unai Mendizabal (Zizurkil, 13 urte).

EMAITZAK ▶

TXIKIETAN SARITUAK

Urretxu-Zumarraga.

Txapelketa irabazi du aurten. Iaz ere talde hau izan zen txapeladuna.

HANDIETAN SARITUAK

Oier Aizpurua. Zarautzarra. Hodei Iruretagoiena. Zarautzarra.

EUSKAL HERRIKORA DOANA

Ane Labaka. Lasartearra bada ere, Asteasuko bertso eskolan aritzen da.

BERTSO PAPERETAN

Oihana Iguaran. Bigarren saria lortu zuen Amasako gazteak.

Finaleraino, Urretxu-Zumarraga, Aizarnazabal, Asteasu eta Alegia-Usurbil aritu ziren. Urretxu-Zumarraga zen iazko txapeladuna, eta aurten ere ez zuen hutsik egin. Asteasu taldea oso hurbil ibili zen, eta askoren ustetuz euren merezi zuten txapela. Hala ere, denak konforme geratu ziren.

Asteasu taldeko Ane Labaka lasartearrak Euskal Herriko finaleraino txartela eskuratu zuen Urretxu-Zumarragako Amaia Iturriotzekin batera. Altsasun izango da finala hilaren 24ean. Lehia horretan Euskal Herri osoko gaztetxoak lehiatuko dira.

Epai lanetan Antton Kazabon (Oiarzun), Nahikari Gabi-londo (Zarauz) eta Mikel Aizpurua (Mutriku) aritu ziren.



Bridge UDAKO IKASTAROAK UZTAILA 2006

Haur, gazte eta helduentzat

FRANTSESA & INGELESA

FIRST eta ADVANCED

azterketak prestatzeko ikastaro trinkoak

Talde txikietan • Ordutegia taldeen arabera

Pablo Gorosabel 2 - 1A • 20400 Tolosa
943 65 00 70 • 680 222 526
www.bridge2005.com • bridge2005@bridge2005.com

Heldu den larunbatean ekainak 10 bi kanu ederdu CDe dabantik berriarekin

Joseba Tapia

Irailaren plazaletako duen **Real Polink** berria diakarren surrerapen berezia

AHT ▶

«Tolosaldeko lur jabeengan eragingo du gehien AHTk»

AHTk baseritarren etorkizuna «kolokan» jarriko duela salatu du EHNEk, AHT Gelditu! Elkarlanak etzi deitutako Donostiako manifestazioarekin bat eginez

INIGO TERRADILLOS

«AHTk nekazaritza bortizki erasotuko duela» eta, ondorioz, baseritarren etorkizuna «kolokan» jarriko duela adierazi zuten Euskal Herriko Nekazarien Elkarreak atzo, Aldaba Txikin eskaini zuten prentsaurrekoan. Tolosako auzoko kasakoaren albo batetik, hain zuzen, aurreikusi dute igaroko dela AHTren trazatua, eta horregatik aurkeztu zituzten bertan proiektu horrekiko desadostasunak eta izango dituen «ondorio larriak». Halaber, Tolosaren goikaldetik igaro ostean, Anoeta, Zizurkil eta Aduna aldera joko duela AHTren trazatuak eta, ondorioz, Tolosaldeko lur jabeak («erasotuko») dituela gehien AHTk adierazi zuten.

Eneko Karrerak, EHNEko lehendakaria, Jaurilaritzak ez duela proiektuaren inguruko informaziorik eman eta eman duen informazioa okerra izan dela salatu zuen; «300 baserri ingururi erasango diela adierazi zuten pasa den astean, baina hori gezurra da; izan ere, azpiegitura erraldoi hau zona menditsuan egingo denez, lur-sail gehiago harrapatu behar du azkenean». Bestalde, «bere inguruan segurtasun-gune handiak behar dituzte», lurraldea erabat zaitutiko duela azaldu zuen eta, gainera, «obregatik iturriak desbideratu egingo dituzte, baserri asko urik gabe geratzeko arriskuarekin». Nekazal lurrekiko



Aldaba Txikin, atzo EHNEk eskaini zuten prentsaurrekoaren une bat. I. TERRADILLOS

ENEKO KARRERA
EHNE-KO LEHENDAKARIA

«AHT izugarritzko jipoia izango da Lehen Sektorearentzat, eta uste dugu jendea ez dela konturatzen»

«erasoaz» gain, inbertsioak ere zuzenean nekazaritza arloari eragingo diola adierazi zuten Karrerak; izan ere, «120 urteetako aurrekontua adina-koa izango da, beraz, hipotekak geratuko da etorkizuneko nekazaritza; garbi dago izugarritzko jipoia izango dela Lehen Sektorearentzat, eta uste dugu jendea ez dela konturatzen izango dituen ondorioetan».

Nekazaritza sailaren «arduragabetasuna» ere salatu du EHNEk; «Jaurilaritzak Lurrane-

JUAN MIGEL ARISTI
BASERRITARRA

«Penagarria iruditzen zait baserritarrok dugun informaziorik eza; salduta sentitzen dut neure burua»

finantzatu eta erabiltzen du AHTrako lurra desjabetzeko, eta hasiak dira aurrejubilazioak eskaintzen nekazariari».

Baserritarrak kezkatuta

Baserritarrez gain, udaletxeetan ere ez dutela AHTren informazio gehiegirik gehitu zuten Karrerak; «inork ez daki ezer, ez nekazaritza ez eta gizarte-aren ez baita eztabaidarik eman, eta guk eztabaida soziala eskatzen dugu». Halaber, informa-

ziorik ez izate horrek baserritarrak asko kezkatzen dituela gehitu zuen; izan ere, «beraien ogibidea dago jokoan, eta urte askotako historia gal daiteke AHTren ondorioz».

Aldaba Txikin du bere baserria Begoña Aristik, eta zuzenean bereari eragingo ez dion arren, obrek bideetan eta eragina izango dutela uste du; «ez guk ez eta udaletxean ez dakigu ezer ziurrik», dio. Juan Migel Aristik, bestalde, Zizurkil du ikuilua, eta beldur da «AHT dela-eta ziurrenik bota egin behariko baitugu». Aristiri penagarria iruditzen zaio duten informaziorik eza; «salduta sentitzen dugu geure burua».

Hala, EHNEk AHTren «ondorio larriak» salatzeak, AHT Gelditu! Elkarlana plataformaren deialdiarekin bat eginez, etzi Donostian izango den manifestaziora deitu ditu herritarrik.

Italiako ereditik ekarpenak

Erredakzioa ▶ Herritar ugari izan zen AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta Valle di Susako (Italia) *Centro Sociale Askatasuna*-ko bi kidek eskaini zuten hitzaldian, herenegun —argazkian—. Hain zuzen ere, AHT bertan behera geratu da han herritarren eta Udalen ekimene bultzatuta. Ostiralean, bestalde, bilkura egin zuten Trianguloan, «konponbiderako oztopoak agerian utziz». HITZA

TXARAMA ▶

‘Erreleboa’ antzezlan bihar kultur gunean

Uli Mankomunitateak antolatuta, bihar, 20:00etan, Txaramako kultur-osasun gunean *Erreleboa* antzezlanaz gozatzeko aukera izango da. Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrek soldaduska egiten ari diren bi gazte irudikatuko dituzte antzezlan «entretenigarri eta umoretsu» honetan; bata soldaduska bukatzen ari den bitartean, bestearentzat esperientzia berri bilakatuko da.

OREXA ▶

Tutorearen bisita izango da gaur KZgunean

Gaur izango da tutorearen bisita Orexako udaletxeko ganberan dagoen KZgunean. Goizean, 09:00etatik 13:00etara izango da tutorea bertan erabiltzaileen zalan-tzak argitzen.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxis: 670420
 - ▶ Taxis (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



LEITZA ▶ KIROLAK

Plazako Txapelketan final-laurdenetarako bikoteak ezagun dira

8 bikote onenek etzi jokatuko dute, era gurutzatuan; irabazleak zuzenean sailkatuko dira finalerdietarako

ERREDAKZIOA

Sailkapeneko ligaxka bukatu dute Plazako XIV. Eskuz Bina-kako Txapelketan, eta jada final-laurdenetarako sailkatu diren 8 bikoteen zerrenda ezagutarazi dute antolatzaileek.

Hiru taldetan banatuta jokatu dute aurreko fase hori. Horrela, sailkapeneko irizpideen arioren, «talde bakoitzetik lehendabiziko eta bigarren gelditu diren bikoteak» igaro dira final-laurdenetara; eta zortzikotea osatzeko, «hiru taldeetako hirugarren sailkatuen artean emaitza onenak dituzten bi». Hala, «gurutzatuan, eta talde berekoak elkarren aurka

SAILKAPENA ▶

A Taldea	I	G	AT	KT
Bengoetxea-Gartzia	3	0	66	27
Zaballos-Iriarte	2	1	58	42
Sagastib.-Arburua	1	2	35	54
Tximista-Bordazpi	0	3	30	66

B Taldea	I	G	AT	KT
Aldaia-Olano	3	0	66	47
Zubillagatarrak	1	2	57	62
Anduezatarrak	1	2	58	64
Lazkano-Alduntzin	1	2	56	64

D Taldea	I	G	AT	KT
Alduntzin-Sagastib.	3	0	66	45
Makatzagatarrak	2	1	53	48
Lazkano-Buldain	1	2	53	62
Tellebea-Zabaleta	0	3	49	66

FINAL-LAURDENAK

1. Bengoet.-Gartzia/Lazkano-Buldain.
2. Alduntzin-Sagastib./Anduezatarrak.
3. Aldaia-Olano/Zaballos-Iriarte.
4. Zubillagatarrak/Makatzagatarrak.

egokitze moduan ez direla», zehaztu dutenez, larunbat honetan berean, 17:00etatik aurrera jokatuko dituzten laurden partidak izendatuta daude.

Irabazle ateratzen direnak zuzenean finalerdietarako sailkatuko direla esan dute, 1. eta 2. partidakoek, eta 3. eta 4. ekok jokatu horietan.

GIZARTEA ▶

Talo Eguna heldu den irailera atzeratu dute

Ordurako, taloz egindako pintxo edo plater erakusketa egiteko asmoa agertu dute

J. ASTIBIA

Ekainaren 18an zuten egitekoa Talo Eguna, Leitzan, Plazaola Patzuergoak eta Udalak, bertako talogileekin batera. Atzo turismo bulegotik egunkari honi baieztatu ziotenez, ordea, atzeratu egin dute, «azken bolada honetan egutegia bete samarra» dagoela arrazoi zuzen.

Plazaola Patzuergoko gerenteak azaldu duenez, «orain igaro berria da Kultur Astea; hurrengo astean Musika Eskolako kontzertua izanen da; egitaraua nahiko beteta dago». Erantsi duenez, «gainera, taloak aukeran egon dira lehenengo astean bertan, Kultur Astean; eta are gehiago, Talo Egunerako Musika Eskolako kontzertua gurean prestatuta, beraz, gauzak errepikatzea ere bazen, ez zen

gauza berririk eskaintzen. Hortaz, atzeratzea erabaki genuen, lehenengo astean bildu ginenean», argitu zuen berak.

Hala, uda bukaera alderako finkatu dute data: «Drailaren 10ean egingen dugu», zehaztu zuen. Ordurako, Talo Egunari «berrikuntza bat» ere erantsiko diotela iragarri zuen. Izan ere, «taloz egindako plater eta pintxo erakusketa» egitea bururatu zaie.

Bertan, patzuergoko bazkide diren jatetxeek, tabernek, landetxeek parte hartu omen dezakete; «eta Leitzako edozeinek ere bai, herriaren egiteko denez». «Sukaldariak beren proposamenak prestatzeko beta badute ordurarte, probak egiteko-eta», baina izena eman hil honen bukaera baino lehen egin behar dela gogoratu dute, Plazaolako turismo bulegoan.

LEITZA ▶ POLITIKA

Errepresioa gelditzeko eskatuz PSOERI

J. Astibia ▶ Pasa den ostiral iluntzean, Euskal Herriko herri frankotan bezala, elkarretaratzea egin zuten Leitzan ere ezker abertzaleak egindako deialdiari jarraituz. «Benetako konponbide demokratikoaren alde», PSOERI «bukatu ez diren atxilotetak, torturak eta kartzeleratzeak, zitazio eta fidantzak... Oro har aurrera eramaten ari den errepresiozko jokabidea alde batera utzi eta geldiarazteko» eskatzeko egin zuten. J. ASTIBIA



LEITZA ▶

Hilaren 15ean NAN delakoa egiteko aukera udaletxean

ERREDAKZIOA

Ekainaren 15ean, 09:00etatik 11:30era bitartean, NAN delako nortasun agiria berritzea aukera izanen da Leitzako udaletxeko bigarren solairuan.

Izena emana izan ez arren, bertatik jakinarazi dutenez, «interesatua dagoen edonork» berritu omen dezake karneta.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarr. Gorritira irteera antolatuta du Haitzetan Raju mendi taldeak igandean. *Sua* filmarako grabaketa ere egingo dute arratsaldean. Izen-ematea, Ibarrako Atarin eta Zubiaurren, Tolosako Denak-en eta 652 71 58 00 telefono zenbakian.
Tolosa. Adinekoen Astea: 10:30ean, meza; 11:00etan, galderen lehiaketa eta sari banaketa; 17:00etan, txokolatada lorategian.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsasoren margolanak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketak. Uztailearen 1a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zuluetaeren lanak. Hilabete osoan, Saikin tabernan.
Zizurkil. Abulondo kultur ebekan klima aldaketari buruzko erakusketak izango da, igandea bitarte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizuetza, F. Loidi Etxea. 112.
Tolosa. Ollarrea, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren erreparazioa, albisteak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari.*
 21:00-23:00. *Gau bero.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Uzturpen triatloia egin zuten; argazkian, patinatzaile trebeak. HITZA



Jaialdia Laskorainen; bazkarian, 700 lagun elkartu ziren. HITZA

Elkarrekin, ikasturteari agur

TOLOSALDEA ▶ Ikastolaren Eguna egin dute Tolosako Laskorainen, Ibarrako Uzturpen, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotzan eta Anoetako Herri Ikastolan

ERREDAKZIOA

Azkenetan da ikasturtea, eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko ikastetxeetan, azken txanpan murgilduta dauden honetan, jaialdiak eta era guztietako ekitaldiak antolatzen ari dira kurtsoa behar bezala agurtzeko. Pasa den asteburuan, esaterako, lau zentrotan ospatu dute Ikastola Eguna: Tolosako Laskorainen, Ibarrako Uzturpen, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotzan eta Anoetako Herri Ikastolan.

Eguraldi bikainak lagunduta, eta giro onean, ikasleek, irakasleek, langileek eta senitartekoei bat egin dute egun berezi honetan. Denetik izan dute, gainera, egunaz gozatzeko: Laskorainen txirrindulari bira, jaialdia, paella jatea, dantzaldia...; Uzturpen triatloia, jolasak, kirolak, bazkaria...; Anoetan ibilaldi neurrotan, jokoak, futbol partida ikasle-irakasle eta Ikastolaren Junta...; eta dantza, jokoak, disko festa, DBH 3koen taberna dirua ateratzeko... Jesusen Bihotzan.



Txikien emanaldia, Anoetan; bazkarian 425 lagun elkartu ziren. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Zorionak, txo!
 29 urte.
 'Koadrilaren' partetik.



ZORIONAK
 Juani eta Inaxio (Irura).
 Gaur urrezko ezteiak egiten dituzte.
 Zorionak familia guztiaren partetik.



600 lagun inguru bildu zen Jesusen Bihotza ikastolara. HITZA

Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu

- 1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- 2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:
 Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza • Araba etorb.5 • TOLOSA**
 Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

1 TENERIFERA BIDAIA
 2 lagunentzat astebeteko egonaldia



LAUTREK
 bidaia agentzia
 korreo kalea, 52 • TOLOSA
 Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
 Faxa: 943 67 39 12
 zure neurriko bidaliak antolatzen ditugu

2 OTORDU EDERRA
 2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

Berjaldegi Plaza, 7/g • Tolosa
 Tel.: 943 88 28 93

bete zure datuak	
Harpidedunaren kodea.....
Izena.....
Abizenak.....
Helbidea.....
.....
Herria.....P.K.....
Telefonoa.....
Pelektronikoa.....